

Sardiniarrak genetikoki populazio berezia direla berretsi dute

Sardiniarrek eta euskaldunek indoeuoparren aurreko jatorri neolitikoa partekatzen dutela iradoki du [Nature Genetics aldizkarian argitaratutako ikerketa batek](#). Europako populazioaren inguruko hipotesi nagusiek diote Ekialde Hurbiletik eta Anatoliatik zabaldu zirela nekazari neolitikoa Europan –duela 8.000 urte inguru–, eta, geroago, estepako artzainen zabalkunde postneolitikoa gertatu zela –duela 4.500 urte–. Sardinia irlako biztanleetan, ordea, ez dute ikusi estepako artzainen arrasto genetikorik, baina bai aurreko ehiztari-biltzaileenak, Neolito Goiztiarrekoak.

Sardiniarren ezaugarri bereizgarria da populazio kontinentalekin duten desberdintasuna. Datu genetikoen arabera, geografikoki oso isolatuak egon dira urte luzez; duela 4.300-7.000 urte isolatu ziren europar populazio kontinentaletatik. Hala, interes handikoak dira haiei egindako azterketa genetikoa, eta Giza Genomaren Aniztasuna proiektuan sartu dira. Kasu honetan, 3.514 gizabanakoren genoma osoa sekuentziatu dute, eta euskaldunekin antzekotasun genetikoa gehien Sardinia osoan isolatuen egon den guneak erakutsi du. Italiarrekin zein espainiarrekin baino antzekotasun nabarmen handiagoa dutela ikusi dute. Datu berriak, hortaz, bat datoz [sardiniar eta euskal populazioen arteko lotura genetikoa adierazten zuten hipotesiekin](#). ●



ARG.: Pexels.

Epaileek CO₂-isuriak % 25 murriztera behartu dute Herbehereetako Gobernua

Epaitegiek behartu egin dute Herbehereetako Gobernua 2020rako CO₂-aren isuriak % 25 murriztera. [Urgenda Fundazioak](#) eta 900 herritarrek auzia jarri zioten Gobernuari 2015ean, ez zituelako sinatutako akordioak bete, eta epaitegiak arrazoa eman die. Azkenaldian klima-aldaketa dela-eta erregai fosilen enpresei eta gobernuari jartzen ari diren auzien adibide bat besterik ez da hori, garai batean tabakoaren enpresei jarri zitzaizkien antzekoa.



ARG.: Wikimedia Commons.

Epaileen arabera, Gobernuak ardura du herritarrak jarduera industrial kaltegarrietatik babesteko, eta orain arte hartutako neurriak ez dira nahikoak izan isuriak murrizteko. Belaunaldi honen bizitza eta ondorengoena arriskuan jartzea egotzi diete.

Ebazpenaren aurreko egunean aurkeztu zuen IPCCek, hain justu, [klima-aldaketaren inguruko txosten berria](#). Txostenaren arabera, planetak 2030-2052rako gaudituko du berotze globalaren 1,5 °C-ko muga, eta horrek handitu egingo du muturreko lehorteak, uholdeak eta milioika pertsonarentzako elikagai-eskasiak eragiteko arriskua. Hala, txostenak dio mundu osoko gobernuak “aldaketa azkarrak, irismen handikoak eta inoiz ez bezalakoak” egin behar-ko lituzketela gizartearen alor guztietan. ●